

Zerua

itsaso zikin bat da

Aritz Mutiozabal Zabala



Zumaiako Udala



Z ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

omskar txanpan

Zerua

itsaso zikin bat da

Aritz Mutiozabal Zabala

Julene Azpeitia 34. ipuin lehiaketa

2021

Bigarren saria

2021eko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Aritz Mutiozabal Zabala (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Told you a little secret that you should not tell no one / Why'd you talk? Why'd you talk? / I told you a little secret that you should not tell no one/ And you talk...you talk, you talk / I said / You Chatty Chatty Chatty. EITB Irratian Toots & The Maytals-en klasikoa entzun zitekeen egunkariko kultur orrialdeetara iritsi nintzenean. Hirurogei bat urteko gizon bati bi orrialdeko elkarrizketa eskaini zioten egun horretan. Onkote baten itxura zeukan, begi txiki eta aurpegi biribil horrekin, baina azeri irribarrea erakusten zuen argazkian, agian lotsagatik, baina baliteke bere izate zirikatzaileagatik; eta buruan eskasagoa zuen ile mataza zuria, urteen iraganak ezkututzen ez ziotena. Habanako jauregi handiki baten kanpoaldean ateratako erretratu bat zen, eguzki gozotatik ihes, gerizpean badaezpada ere. "Nire liburuak arreta apur batekin irakurtzen dituen ohartuko da non ibili naizen". Titular hori aukeratu zuen Jose Goitiak, eta azpitiularrean ondorengoa zehaztu: "Hiru hamarkadaren ondoren, publiko izango da aurrerantzean idazlearen jarduna, irakasle ariko baita Habanako Unibertsitatean. Dioenez, idazten jarraitu ahal izatea da bere asmoa, arreta gehiegi erakarri gabe". Joseba Sarrionandia zen, lozorroalditik esnatu bailitzan, Walt Disneyren kriogenizazio kabina tupustean ireki eta *That's all Folks!* oihukatuko balu bezala, eta ni shock egoeran. "Harritzen naiz diotenean ezkutaturik bizi naizela, edo ez dudala argazkirik ateratzen uzten. Aspaldi ez naizela ezkutatuta bizi, horrek ez du esan nahi prentsan agertzea gustatzen zaidanik". Alberto Diaz argazkilariak atera eta betiko hilezkortuta geratu den Ernesto Che Guevararen irudia legez, niretzako Sarri zen albo batera begira dagoen zuri-beltzeko gazte hori, bere bizar zainduarekin eta Harvard-eko logoa daraman jertsearekin; edo nahi izatekotan, begirada galdua duena, koadrozko alkadoraren gainetik jertse iluna duena, hau ere zuri-beltzekoa. Zertara zetorren orduan egunkariko agerraldi hura? *I told you a little secret that you should not tell no one/ And you talk...you talk, you talk / I said / You Chatty Chatty Chatty.*

Desagertutako seme kuttunaren agerraldia. Literatur marketin estrategia. Epifania Marianak. OHEen begiztatzea. Yetia Gorbeiaiko gurutzean. Ez galdetu zergatik, baina susmo arraroa hartu nion. Nire buruari hiru hamarkadako Sarriren argazki bilduma falta zitzaion, haren heldutze, zahartze, garatze grafikoa, euskal gizarteak eta kulturak galdu zuena eta inoiz berreskuratuko ez zuena. "Harritzen naiz diotenean ezkutaturik bizi naizela, edo ez dudala argazkirik ateratzen uzten". Adierazpen haiek tinpanoan sentitzen nituen dilin-dalan adarjotzaileak ziren. Ni eta nire konspirazioak. Egunkariko elkarrizketa hura *fake* bat zen: pertsona hura ez zen Joseba Sarrionandia, elkarrizketa beste norbaitek edo norbaitzuk orkestratu zuten eta motiboa... motiboa zen jakin beharrekoa. Eta, nola ez, non dago Sarri? *Non dago Wally?* Itzulinguruka ibiltzeko gogorik gabe, Amaia Ezpeldoi detektibeari hots egin nion: hasieran ez zuen bide ikusten, bera horrelako kasuetan espezializatuta ez zegoelako eta nik ematen nizkion argudioei ez zielako ez hanka ez buru ikusten, baina ekonomikoki akordio batera iritsi ginen, eta kasua onartu zuen azkenean. *Txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa, haretzek ematen dit, maitea, bihotzean poza.*

Hasteko, Pott Bandako adiskideengana joko zuela esan zidan Amaiak, lagun zaharrekin beti mantentzen delako harremana. "Hala da, bai. Lagun-minek, orde, ez zaituzte salatzen", erantzun nion. Detektibeak irribarre txantxazale bat egin zidan, eta sorbaldan kolpetxo bat emanez, *You Chatty Chatty Chatty* ahapetik kantatu zuen. Literaturazale gazte batzuk 70eko hondarrean osaturiko talde apurtzaile eta abangoardista izan zen Pott Banda, eta beraien jakin-min eta sormen literarioak plazaratu zituzten underground kutsuko aldizkarietan. "*Bi hitzetan adieraziko dizuegu zertan den geure konplotta. Editoriale bat egiteko bildu gara Bilbaon POTT bandakook. Legioan bezala ez diogu elkarri eskatu curriculum vitaeerik, afalondotako patxadaz hasi gara ekinean. Ukatu egin digute, oraingoz, derrigorrezko zenbaki editorialea; baina burokraziaren mirakuluak ez gaituzte alderatuko. Bien bitartean, hau bezalako panfloen bitartez jakinen duzue gutaz. Hitz bat oraindik: editoriale bat ez da beti sortzen plangintza kulturalaren hutsuneak betetzearren. Ez gaude horri begira. Begira gaude begira goiko kamino berrira, esan nahi baita, ez gaudela inori serbitzeko geure buruak argitzeko baino. Mekaben Pott"*. Ondorengo manifestua dakar 1978ko martxoan argitaratutako Pott aldizkariaren lehen zenbakiak, *Pott bandaren berriemailea* izenekoak. Joseba Sarrionandiarekin batera, Bernardo Atxaga, Manu Ertzilla,

Joxemari *Jimu* Iturralde, Jon Juaristi eta Ruper Ordorika izan ziren talde hartako ordezkariak. Beraiei gustatu ala ez, Euskal Herriko Beat Belaunaldia abiarazi zuten: ez da kasualitatea izango gaztetako Allen Ginsbergek eta gaztetako Ruper Ordorikak elkarren antza edukitzea; hori edo, bestela, pasta lodiko betaurrekoek nahasi egiten naute. *Ez da posible, ezin liteke / Ondo nago eta hau bakarrik behar nuen.*

Pott Bandako bost adiskideekin jarri zela harremanetan kontatu zidan Amaiak, baina horietako hiruk bakarrik onartu zutela berekin elkartzeko gonbita. Hirurak elkarrekin agertuko zirela hitzordura. Beste bien erantzuna ere aurreikusten omen zuen: bata Madrilen zegoen, beste ildo batzuetan murgilduta buru-belarri eta gezurra zirudien noizbait halako banda batean ibilitakoa zenik ere; eta bestea, nola esan, beti izan zen diskretu samarra, eta orduan ere, asko axola ez bazion, gisa berean jokatu nahi zuela erantzun zion detektibeari. Durangoko Plateruena Kafe Antzokian batzartzeko geratu ziren, eta halaxe egin zuten. Garaipen-sarrera eginez sartu ziren aretora, Compton-eko gangsta hip-hop izarrak izango balira bezala, inguruko guztiak agurtuz, eskua emanez, harekin nahiz honekin bi hitz eginez. Begirada guztiak beraiengana erakarriz. *Oraintxe bertan POTT auzitegia indarrean dago / Ezpeldoi Doktorea epaile POTTen kasuan eta polizia sailaren buru / Abokatuen auzipetzea Rapper Ordorika, Bern Ice Traptxaga eta Jimu Eazy motherfuckin 'l dira / Ordena, ordena, ordena, Bern Ice Traptxagak mamutxoaren jarrera hartzen du / Zin egiten al duzu egia-egia osoa esatera?* Fermin Muguruza bakarrik falta zitzaien megafonoarekin, *Radio Rahim* abestiaren bideoklip amaieran ikus daiteken moduan. *Do the right thing.*

Amaiak kontatu zidanez, hiru lagunak adeitsu aritu ziren solasean, ezer ezkutatzeko asmorik gabe. Garai zaharrak gogoratu zituzten, aldizkaria egiten zuteneko bitxikeriak, konposatutako lehendabiziko abestiak, eta nola aldatu ziren gauzak, hobera eta txarrera, eta zenbat zahartu diren. "Ez esan halakorik! Ni oraindik gazte sentitzen nauk eta!". Egunkarian agertu zen gizona Joseba zela esan zioten, Sarri, Joseba Sarrionandia bera, nahiz eta agure tankera handia izan. Guztiak zutela gero eta aitona itxura handiagoa eztabaidatzen pasatu zuten hamar minutuz ondorio garbirik atera gabe. Martuteneko kartzelatik ihes egin ondotik, betidanik jakin izan zutela haren berri, nondik nora zebilen, zertan ari zen, non egiten zuen lan... Ruperrek nabarmendu zuen urteak zeramatzala berekin elkarlanean, hark idatzitako olerkiak musikatzan, eta, agian, hiruko hartatik berak

zuela erlaziorik estuena berarekin. "Bere burua aurkezteko une egokiaren zain egon da urte luzaz, eta ene uste apalean, orain iritsi dela iritzi dio. Horregatik, agertu da prentsan, eskaini du elkarrizketa... Zilegi da, eta nik errespetatzen dut erabat haren borondatea". Hankamotz. Epel. *Insipide*. Ezpeldoik jasotako informazioarekin ez nindoan inora, hori ez baizen aurreikusten nuena, espero nuena, nire konspirazio ederretan jaso nahi nuen erantzuna. Beraz, detektibeari zor niona kitatu, eta Itxaro Bordari eskumuinak emateko esan nion agurtzerakoan. Nire baitan ernaldu zen misterioari nik neuk heldu behar nion adarretatik, kostatuta ahala kostatuta, eta hegaldi merkeak eskaintzen zituen konpainia baten bitartez Habanaranzko bidaia erosi nuen. *Antillak zintzilik daude / Argazkien paretetan / Karta bat idatziko dut / Norbaitek erantzun dezan*.

Habanako Unibertsitatea Vedado auzoaren bihotzean dago, hiriko kultur erreferenteez inguratuta, eta horrek asko laguntzen du irisgarritasun aldetik, taxien eta omnibusen joan-etorria ugaria baita zonaldean. Alde horretatik, erraz topatu nuen egungo Joseba Sarrionandia erretratatu zuten tokia, baina ez horrenbeste bera. Unibertsitateko idazkaritzara zuzendu nintzen irakasle baten bila nenbilela azalduz, euskalduna zela, idazlea, kamarada bat... "Si me puede facilitar su nombre, compay?". "Joseba Sarrionandia Uribelarrea. Me gustaría saber en que departamento le podría encontrar". "No nos consta ningún docente con ese nombre y apellido". Hildako katu ustelaren usaina zerion hari, eta niri maskuria betetzen ari zitzaidan. Une batez, Tony Montana bezala ikusi nuen neure burua, traje zuria alkandora beltzaren gainetik jantzita, M16 fusilarekin bulegoan zeuden arima guztiei tirokatzen. "Quizá le pueda ayuda el señor Martin, que también es paisano suyo". Idazkariak emandako argibideei jarraika, pare bat ikasleri galdetu eta beste pare bat korridore oker hartu ondoren, Martin delako irakaslearen bulegora iritsi nintzen. Atea jo nuen. Ez zuen inork erantzun. Atea jo nuen osterara. Ez zuen inork erantzun atzera. Atea jotzeko imintzinoa egin nuen, beste eskuarekin eskutokia biratzen saiatzen nintzen bitartean. Aingeru goardako bat nuela sinesten hasi nintzen egun horretatik aurrera: bulegoa ez zegoen giltzaz itxita.

Sagu-zulo bat zirudien, oso txikia eta hezea, eta limoi-ur usaina galtzerdi erabili kiratsarekin nahasten zen airean. Mahaitxo bat zegoen paperez estalia, desordenatu samarra, ron botila hutsak eta buru lodiko ordenagailu bat, sasoi batean zuria zena, baina artxipelagoko puruen kearekin beix-beix bihurtuta. Paretan William Morris margolari ingelesaren *Queen Guinevere* koadroaren poster

bat zeukan itsatsita koloretako lau txintxetarekin. *Ginebra erregina* erbestean ipuinaz gogoratu nintzen: “Zertara zatoz ~imajina daiteke dioela~, zertara zatoz zorigaiztokoa, ez baduzu zoriona munduko lurraldeotara zurekin ekarriko”. Une horretan bulegora norbait sartzen sumatu nuen, eta begiak harengana zuzendu nituenean izoztuta geratu nintzen. Egunkariko Sarri zen gizon hura, baina Habanako Unibertsitatearentzat señor Martin? “Harritzen naiz diotenean ezkutaturik bizi naizela”. Hasieratik igarri zion euskalduna nintzela, eta atarramentu onekoa ez nintzaiola izango, are gutxiago ni han gertutik ibilita. “Zertara zatoz?” (*r* bortitz ahoskatuta, *rr* bezala).

Iraultza plaza bisitatzeko profitatu nuen irakasle euskaldun hark eguneko klaseak bukatu bitartean, pare bat ordu gutxi gorabehera. José Martí eskainitako oroitarria, Kubako Barne Ministerioaren fatxada hornitzen duen Che Guevararen bisaia erraldoia, *Hasta la victoria siempre* lelo eta guzti, eta Camilo Cienfuegosena Banco Metropolitanon, *Vas bien Fidel* dioena. Ipurtzuloraino nengoen horrenbeste iraultzaz: iraultza komunista, iraultza kapitalista, iraultza literarioa, iraultza teknologikoa, iraultza birikoa, iraultza inuxentea... Kalez kale aritu ondoren, unibertsitateko sarreran nuen zain irakaslea. Handik nahiko hurbil zegoen jateke batera eramán ninduen, Paladar Decamerón izena zuena. Giovanni Boccaccio idazle italiarrari ohore eginez, akaso? “Maso rispose che le più si trovavano in Berlinzone, terra de' Baschi, in una contrada che si chiamava Bengodi, nella quale si legano le vigne con le salsicce”. *Frijoles dormidos, buñuelos de malanga* eta *empanadas de Jains*. Hori izan zen bazkaltzeko aukeratu genuena, nahiz eta nik jan baino gehiago mojitoari eman nion. “Zertara zatoz?” (*r* bortitz ahoskatuta, *rr* bezala), galdetu zidan lehor ordura arte anfitrioi lanak atseginez egiten aritu ostean. “Lehen ere esan dizut, bihozkada bat izan nuen zure elkarrizketa irakurri nuenean. Barruak esaten zidan zu ez zinela zu, ez zinela Sarri, eta hara non, Habanara iristen naizen, eta hemen Martin zaren, ez, ez, ez... señor Martin! Señorito! Zer joko darabilzu esku artean?”. Nik uste dut mojitoek eta gehiegizko azukre dosiak eman zidatela ausardia lotsagabe hura balizko Sarriri esplikazioak eskatzen hasteko. “Isildu zaitez! Orain arte Euskal Herriatik bisitan etorri den jende guztia asmo onez etorri zait, nire literatur ibilbidea ezagutzeko gogoz, hango egoeraren berri ematera eta nirekin egotera, nirekin iritziak partekatzerara... Zu, aldiz, ustekabea aurkeztu zara, inolako bitartekaritarik egin gabe, aurretiazko hitzordurik egin gabe, eta, gainera, kontu eske hasi zara paranoiko baten

moduan. Zer zara Guardia Zibila, GAL, Scotland Yard, Central Intelligence Agency, Komitet Gosudarsvennoi Bezopasnosti, Nationalsozialistischer Untergrund? Ez, beatnik frustratu bat baino ez zara. Ez dut zu bezalako pertsona nazkagarririk ezagutu urteotan" (r bortitz ahoskatuta, rr bezala). Jatetxeko aulkitik altxa eta ospa egin zuen oso haserre.

Santa Maria del Mar hondartzan bukatu nuen egun hura mozkor-mozkor eginda. Zangoak blai-blai eta hareia garbian zirindolaka nire gorputza kroketa bat bihurtu nahian. Aventura etorbidetik etortzen ziren kubatar sonen gainetik Kortaturen *hit* torturatzaile hori kantatzen saiatzen nintzen: *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi hontan / Jendea hasi dela dantzatzen sarritan / Zerbait ikustekoa du bi falta direlako / Recuento generalean / Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri*. Aldamenean nituen guztiek abestiarekin ez jarraitzeko gomendatzen zidaten: "Cantas bonito, pero eres difisil de oir, compay". *Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi badoaz, / Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, hanka kalera / Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bafleetatik... / Kriston martxa dabil!* Portzierto, nire koinatuak Cadizen egin zuen soldaduska, San Fernandoko Marinel Formakuntzarako Kuartelean, eta han, abestiaren zati horretan, guztiek *Cristo marcha en la mili* oihukatzen zutela kontatu zidan behin. Porru eginda iritsi nintzen pentsiora, dagoeneko mozkorraldia pasata, ajearen lehengo zantzuekin. Ohera ziplo bota nuen neure burua, eta lo egiten saiatu nintzen. Baina izerdi eta alkohol kiratsaz aparte, giroan bazen ur-limoi eta galtzerdi erabili sunda ere. Ez nengoen bakarrik, baina ordu haietan ni neu nintzen jolaserako inolako gogorik ez zuena. Lehenengo urratsa egiten ez zuenez, ohean jesarri nintzen eta marranta lehorra eginez galdetu nion: "Zertara zatoz orain zu?"

Oroitzen dudan azken irudia da makro-kontzertuetan erabiltzen dituzten bozgorailu baten barruan esnatu nintzela, ito beharrean eta Ventolinik gabe, eta sakelako telefonoaren lokalizatzaileari esker topatu ninduela Amaia Ezpeldoik Martuteneko kartzelan, Imanolek kontzertua bukatu berritan. Tira, ez zen guztiz horrela izan. Loiolako Kultur Etxean izan zen, Imanol Ubedaren bakarkako emanaldian, Don Inorrez proiektuaren aurkezpenean. San Fermin eguna zen eta ikus-entzule guztiak zapi gorriarekin zeuden paella jaten. "Amangandik irten hintzen bezala irtengo haiz endredo honetatik", esaten nuen ene baitan.

Galtzetako poltsikoan zimurtutako gutun bat neukala konturatu nintzen bafleetatik irten eta etxerako bidean. Amaia Ezpeldoi detektibearen autoan nindoan, kopilotuaren eserlekuan. Gutun-azala ireki, eta barruan idatzia irakurtzen hasi nintzen:

"Lagun agurgarri hori:

Euskal Editoreen Elkartetik idazten dizugu azkenaldian bazterrak nahasten ibili zarela jakin dugulako. Eskutitz honen bidez, gure borondatea da zuri azaltzea bilatzen aritu zaren ezkutuko informazioa. Horren berri izateko, betiere zin egin beharko duzu Txomin Agirreren izenean eta sekretupean gordeko duzula heriotzera arte, bestela euskaltzain urgazleak bidaliko ditugu zure bila Chicagoko mafia irlandarra bailitzan. Ados baldin bazaude, jarraitu irakurtzen. Aldiz, ez badaude ados, puskatu eta bota eskutitz hau zakarrontzira.

Irakurtzen jarraitzen duzunez, lehenik eta behin ongietorri gure klanera. Kontatuko dizugunak eragin handia izan dezake argitara aterako balitz; beraz, diskrezioz jokatu beharko duzu aurrerantzean. Inorekin ez duzu gaiaz hitz egingo, nahiz eta jakin badakizun edo iradoki dezakezun beste hark sekretua badakien. Bestela urgazleak pittbull amorratuak legez izango dituzu etxe aurrean ordu erdian. Beraz, kontatuko dizugunarekin mingaina zulora, eta hemendik aurrera zurekin harremanetan jarri nahiko bagenu, zure beharra beharko bagenu, badakigu non aurki zaitzakegun. Fitxatuta zaude. Ez gaitzazu bilatu. Ez zaitetz saiatu ere egin. Damutuko zaizu eta. Beraz, ongi etorri klanera.

1985eko uztailaren 6an, San Fermin egunez, Imanol Larzabal kantariak kontzertua eskaini zuen Martuteneko espetxean, eta Joseba Sarrionandiak eta Iñaki Pikabeak aukera hori baliatu nahi izan zuten bozgorailu batean ezkutatuta ihes egiteko. Plan perfektua zen. Zoritxarrez, gauzak ez ziren aurreikusi bezala atera: bafleen barruan denbora gehiegi pasatu zuten, eta mugaz bestaldean liberatu zituztenean, Pikabeak arnasestu ahula zeukan eta Sarrionandiak konortea galdua zuen. Bere onera ekartzen saiatu ziren, behin eta berriz, behin eta berriz, baina gauerdian zendu egin zen. Sarriren heriotzak egundoko masailekoa emango zion Euskal Herriari, arlo soziopolitikoan zein kulturean. Euskal gizarteari nola esan behar zitzaion legenda bat jaio zen biharamunean, 'Barkatu, baina ez dago

legendarik!'. Beraz, elkartu ginen elkartu ginenak, eta heriotza hura ezkutatu egin genuen, Sarriren izena eta izana bizirik mantentzeko.

Horretarako, urte hauetan guztiotan txandakako sistema baten bidez joan gara plazaratzen argitaletxe ezberdinok eleberriak, poema liburuak eta saiakerak Joseba Sarrionandiaren izenean. Baina, jakina, argitaletxe bakoitzak gertuen duen idazleren bati eskaini izan dio behar hori, eta ardura hartzen duenak hil aurreko Sarriren obra irakurtzen du, bere idazkera, forma eta estiloa bereganatzeko. Hortik aurrera, nahi duenari buruz idazten du. Gaia libre da, nahiz eta azpigai gakoak beti egon behar duten: erbestea eta herrimina. Tamalez, azkenaldian, Sarriren izenean argitaratu diren obra berriek antza gehiegi dute euren artean, lehengotik baino oraingotik gehiago edaten dutela dirudite. Kutsu hori darie. Baina hori ere beharrezkoa da idazle bat sinesgarri bihurtzeko denboraren poderioz.

Horregatik liberatu genuen langile bat, Olentzero moduko bat, klandestinitatean biziko zena, eta Martin ezizenari erantzungo ziona, baina Joseba Sarrionandiaren figuraren ordezkoa izango zena. Logopedarekin hainbat saio egin behar izan zituen r ahoskatzerakoan rr bezala egiten ikasteko. Euskal Herritik harengana joaten ziren bisitan ezker abertzaleko ordezkariak, literatura eta kultura esparruko jendea, herritar xumeak eta mitomanoak, erromesaldian; lagun baten lagunaren arrebaren lagunaren bikotekidearen bitartez, helbide bat pasatzen genien behin hitzordua egindakoa. Egunkarian irakurri zenuen elkarrizketa guk idatzi genuen, Martinek argazkia baino ez zuen bidali. Guztiz beldurtuta deitu zigun Habanako Unibertsitatean aurkeztu zinenean, zer egin ez zekiela. Lasai egoteko esan genion, eta elkarrekin mojito batzuk hartzera joateko gomendatu genion. Gainerakoaz Kubako euskaltzain urgazleak arduratuko zirela. Istorioak nola jarraitzen duen badakizu, eta zure esku dago orain nola jarraitzea nahi duzun. Bitartean, ongi izan eta ongi etorri gure klanera.

Oharra: mezu hau autosuntsitu egingo da hurrengo bost segundotan. Hala ez bada, emaiozu sua mesedez txiskeroarekin edo pospoloekin. Horrelako ezer ez baduzu eskura, orria txiki-txiki egin eta irentsi ezazu, baldin eta koliko nefritikorik eduki ez baduzu azken urtean. Mila esker!"

EITB Irratia jarri zuen Amaiak, eta uhinetatik gitarra akorde xume batzuk entzuten ziren jada hasita zegoen abesti jostari batenak: *Told you a little secret that you should not tell no one / Why'd you talk? Why'd you talk? / I told you a little secret that you should not tell no one/ And you talk...you talk, you talk / I said / You Chatty Chatty Chatty.*